

Euskal Herriko animaliak

Asier Gorostidi eta Igor Sarralde



Izenburua: **Euskal Herriko animaliak**
Egileak: **Asier Gorostidi eta Igor Sarralde**

Bilduma: Albuma

ISBN: 978-84-9109-635-1

Salneurria: 20,00 €

Orriak: 72

Gure inguruko fauna ezagutzen eta zaintzen ikasten den bitartean, bai hurrei bai nagusiei erakargarri eta irakurterraz suertatzen den liburua egiten saiatu gara Euskal herriko animaliekin.

Asko dira Afrikako animalien inguruan ikusi ditugun dokumentalak eta sarritan hementxe bertan ditugunak baino hobeto ezagutzen ditugu. Gazela bat eta Ñu bat bereizten ditugun era berean orkatza eta oreina bereizteko gai al gara?

Beste aldetik, duela 65 milioi urte desagertu ziren dinosauroez, gure basoetan desagertzear dagoen Basoilarrak baino informazio gehiago daukagu.

Ezagutza ezberdintasun horiek pixka bat berdintzeko nahian, egin dugu Euskal herriko animaliak. Liburua hiru ataletan banatuta dago: Ugaztunak, hegaztiak, eta azkenik anfibio eta narrastiak. Atal bakoitzaren barruan ordena eta familiaka antolatuta daude animaliak. Zehaztasun zientifikoa galdu gabe, animalia bakoitzaren inguruko datu nagusi eta bitxikeriak aurki ahalko dituzue, erraz irakurtzen diren testu laburretan. Atal bakoitzaren bukaeran animaliak aurkitzeko eta bere arrastoak interpretatzeko gako eta trikimailu batzuk emango dizkizuegu.

Liburu honetan testua bezain garrantzitsuak dira irudiak. Animalien ezaugarriak ondo bereizi ahal izateko eta irudiez gozatu ahal izateko, eskuz egindako marrazki handi eta koloretsuz beteta dago liburua. Irudi errealistak egiten saiatu gara, baina aldi berean ilustrazio zientifikoak batzuetan duen hoztasunetik aldentuz. Deigarriak diren pose dinamiko eta naturalen bidez, irakurle guztien arreta deitzea bilatu dugu.

Beraz, animaliak interesatzen bazaizkizue, marrazki landuak begiratzea gustuko baduzue, edo zuen inguruko faunari buruz zerbait ikasi nahi baduzue momentu atsegin bat pasatzen duzuen bitartean, hemen duzue aukera!